## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA

**Programa:** 333700 MUSEOAK

## SAILAREN MEMORIA

### I. MEMORIA

“Museoak” programa administrazio unitate bakar batek kudeatzen du; hain zuzen ere, Museo eta Arkeologia Zerbitzuak. Foru titulartasuneko museo eta horiei lotutako edo antzeko zentro hauek biltzen ditu:

- Arma Museoa, Arte Ederren Museoa, Natura Zientzien Museoa eta Bibat Museoa, Fournier Karta museoa eta Arkeologia museoak biltzen dituena.
- Amarika aretoa, non argazkilaritza eta irudiaren esparrura mugatutako arte proiektuak bultzatu eta zabaltzen diren.
- La Hoya eta Iruña-Veleiako parke arkeologikoak.
- Varonatarren dorrea (titulartasun pribatukoa izan arren, hitzartuta dago).
- Salbuespen gisa, eta hasiera batean aurreikusi gabe, 2023an hainbat museo lan egin dira Kexaako monumentu multzoan, Aiaran, Arabako Foru Aldundiak behin betiko erosi ondoren.

Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak museoen arloan 2023ko ekitaldian garatutako programak, Kultura eta Kirol Sailak ezarritako helburuen betetze mailan islatzen dira, esparru horretan indarreko legediak (Euskadiko Museoei buruzko 7/2006 Legea eta Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legea) ematen dituen eskumen, betebehar eta eginkizunak aplikatuz eta garatuz.

**1. HELBURUA.- AFAren museoak eta antzeko zentroak kudeatzea**

Museo guztietan bezala, museoen foru sarearen helburu nagusia da hura osatzen duten zentroetako funtsak eta bildumak biltzea, eskuratzea,

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 333700 MUSEOS

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

El programa “Museos” está gestionado por una única unidad administrativa, el **Servicio de Museos y Arqueología**. Engloba a los siguientes museos de titularidad foral y centros vinculados o asimilados:

- Los Museos de Armería, Bellas Artes, Ciencias Naturales y el Museo Bibat, que aglutina los museos Fournier de Naipes y de Arqueología.
- La Sala Amárica, donde se impulsan y difunden proyectos artísticos centrados en el campo de la fotografía y la imagen.
- Los Parques Arqueológicos de La Hoya e Iruña-Veleia.
- La Torre de los Varona, que pese a ser de titularidad privada se encuentra conveniada.
- De forma excepcional y sin que estuviera inicialmente previsto, en 2023 se han desarrollado diversos trabajos de carácter museístico en el **Conjunto Monumental de Quejana**, en Ayala, tras su definitiva adquisición de la Diputación Foral de Álava.

Los programas desarrollados por el Servicio de Museos y Arqueología de la Diputación Foral de Álava en el campo de los museos durante el ejercicio de 2023 son reflejo del grado de cumplimiento de los objetivos previstos por el Departamento de Cultura y Deporte, en aplicación y desarrollo de las competencias, obligaciones y funciones que en dicho campo otorga la legislación vigente (Ley 7/2006, de *Museos de Euskadi* y Ley 6/2019, de *Patrimonio Cultural Vasco*).

**OBJETIVO 1.- Gestionar los Museos y centros asimilados de la DFA**

Como en todo museo, el objetivo esencial de la red foral de Museos en su conjunto es la reunión, la adquisición, la conservación, el inventario, la

kontserbatzea, inbentarioa egitea, katalogatzea, zaharberritzea, modu ordenatuan erakustea eta zabaltzea.

Eskuratzeetarako partida espezifikorik ez dagoen arren, bildumei ekarpenak egiten jarraitzen da beste prozedura batzuen bidez:

- Arte Ederren Museoa: partikular batek margolan bat eman du, eta, horrez gain, amaiera eman zaio Celaya Fundazioaren bilduma ordainetan emateko prozedurari, 2023ko martxoan.
- Natura Zientzien Museoa: bildumari 9.065 ale berri gehitu zaizkio, Biogeariumeko kontserbatzaile taldeak eta beste kolaboratzaile batzuek egindako bilketa eta azterketengatik.
- Arma Museoa: ez da ezer gehitu bildumara.
- BIBAT-Fournier Karta museoa: bildumari 15 karta sorta berri gehitu zaizkio. Gainera, funtsak digitalizatzeko lanean jarraitu da, eta 6.400 irudi berri baino gehiago sartu dira datu baseetan.
- BIBAT-Arkeologia Museoa: araudi arkeologikoa betez, 127 kutxa sartu dira material berriekin. Dagozkien gordailu aktak izapidetu dira eta dagozkien inbentarioak jaso dira, zeinak egiaztatzeko eta baliozkotzeko prozesuan baitaude. Gainera, antzinako materialen datu baseen katalogazioa berrikusten eta eguneratzen jarraitzen da (5 aztarnategi desberdinetako 79 kutxa).
- **Kexaako monumentu multzoa:** gunea erosi zen unean interesgarritzat jotzen ziren elementu higigarri gehienak berrikusi, hautatu, inbentariatu eta bertako antzinako museoko lokaletan biltegiratu dira.

**1.1. ekintza. AFAko museoen zerbitzu kartaren**

catalogación, la restauración, la exhibición ordenada y la difusión de los fondos y colecciones de cada uno de los centros que la conforman.

Pese a que no se cuenta con una partida específica para adquisiciones, se siguen produciendo nuevas **incorporaciones** a las colecciones por otros procedimientos:

- Museo de Bellas Artes: además de la donación de un cuadro por un particular, destaca la conclusión del procedimiento de dación en pago de la colección de la Fundación Celaya, que se hizo efectiva en marzo de 2023.
- Museo de Ciencias Naturales: se ha producido un incremento de la colección en 9.065 nuevos ejemplares, por recogidas y prospecciones propias a cargo del equipo de conservadores de *Biogearium* y otros colaboradores.
- Museo de Armería: no se han producido nuevas incorporaciones a la colección.
- BIBAT-Museo Fournier de Naipes: se ha producido la incorporación de 15 nuevas barajas a la colección. Además, se ha continuado trabajando en la digitalización de los fondos, incorporándose más de 6.400 nuevas imágenes a las bases de datos.
- BIBAT-Museo de Arqueología: en cumplimiento de la normativa arqueológica se ha producido el ingreso de 127 cajas con nuevos materiales, para los que se han tramitado las correspondientes actas de depósito y se han recepcionado los correspondientes inventarios, que están en proceso de comprobación y validación. Además, se continúa trabajando en la revisión de la catalogación y actualización de las bases de datos de materiales antiguos (79 cajas de 5 yacimientos distintos).
- **Conjunto Monumental de Quejana**: se ha procedido a revisar, seleccionar, inventariar y almacenar en las dependencias del antiguo museo del lugar, la mayor parte de los elementos muebles considerados de interés que existían en el complejo en el momento de su compra.

**Acción 1.1. Implantación y seguimiento inicial**

**hasierako ezarpena eta jarraipena**

Maiatzean ezarri zen Arabako museoen zerbitzu karta, eta jendearen eskura jarri zen museoetan, bi hizkuntza ofizialetan, paperezko formatu tradizionalean zein digitalean, zentro bakoitzaren webguneetan argitaratu ondoren.

Horrela, Museoen Foru Sarearen 2018-2021 aldirako Ekintza Planak ezarritako mugarri nagusietako bat amaitu zen, eta bidea ireki zen foru museoen erabiltzaileen gogobetetze maila behar bezala frogatu ahal izateko. Hori udazkenetik aurrera egindako inkesta kanpainan islatu da.

**1.2. ekintza. Bilduma foralen biltegiratze eta kontserbazio prebentiboko baldintzak hobetzea**

Museoetan bertan kokatutako gordailuetan egindako jarduketen artean, nabarmentzekoa da hezetasuna kentzeko makinak jarri direla BIBAT Museoko arkeologia funtsetan, kontserbazio baldintzak egonkorragoak izan daitezen, eta feromona tranpak jarri direla Arma Museoan ehunei eragiten dieten sitsak kontrolatzearren.

Baina kanpoko biltegiratze guneei dagokienez, museo guztietan egin ohi diren kontrol eta jarraipen jarduketez gain, bi lan lerro osagarritan egin da aurrera:

- **Ibilgailuen Zerbitzuan.** Eskaintzen diren espazioen birmoldaketa arkitektonikoari buruzko proposamen baloratua definitu da, instalazioetan eskuragarri dauden espazio gisa. *1618 arkitektura estudioak eta F&M Energía ingeniaritzak idatzi dute batera.*
- **Artapadura kaleko biltegian. Zubigaraiko biltegiko** edukien zati handi bat biltegi horretara eramaten hasi dira, taxidermien bilduma izan ezik, horretarako jarduera

**de la Carta de Servicios de los Museos de DFA**

La implantación de la *Carta de Servicios de los Museos de Álava* se realizó en el mes de mayo con su puesta a disposición del público en los diferentes museos, en los dos idiomas oficiales, y tanto en formato tradicional en papel como en versión digital, tras su publicación en las páginas web de cada centro.

Culminaba así uno de los hitos principales marcados por el *Plan de Acción de la Red Foral de Museos 2018 – 2021* y se abría el camino para poder testar adecuadamente el grado de satisfacción de las personas usuarias de los museos forales, que se ha plasmado en la campaña de encuestas realizado a partir de otoño.

**Acción 1.2. Mejora de las condiciones de almacenaje y conservación preventiva de las colecciones forales.**

Entre las actuaciones desarrolladas en los depósitos situados en los propios museos, destaca la instalación de deshumidificadores en los fondos de Arqueología del Museo BIBAT, que han posibilitado una mayor estabilidad en las condiciones de conservación, así como la instalación de trampas de feromonas para el control de polillas que afectan a los textiles en el Museo de Armería.

Pero además de las actuaciones de control y seguimiento habituales en todos los museos, por lo que respecta a los espacios de almacenaje externos, se ha avanzado en dos líneas de trabajo complementarias:

- En el **Parque Móvil**, definiendo una propuesta valorada de futura remodelación arquitectónica de los espacios ofrecidos como disponibles en sus instalaciones. Ha sido redactada de forma conjunta por *1618 Estudio de Arquitectura* y la *Ingeniería F&M Energía*.
- En el **depósito de la calle Artapadura**, al que se han empezado a trasladar buena parte de los contenidos del **almacén de Puente Alto**, salvo la colección de taxidermias, que requiere de

espezifiko garestia behar baita. Hala, baldintza hobeak dituzte orain antzinako tresna zientifikoek, Natura Zientzien Museoko pieza organikoetarako eta izaera desberdineko beste objektu batzuetarako izozkailuek eta Fournier Karta Museoko makineria bildumak.

**Kexaako monumentu multzoari dagokionez, 90eko hamarkadatik aurrera museo gisa erabili zen espazioa biltegi gisa gaitu behar izan da.** Apalategi berriak eta hezetasuna kentzeko ekipo berriak instalatu dira, espazio itxi eta kontrolatua izan dadin, bertan kontserbatutako ondasun higigarriak behin-behinean gordetze aldera.

**1.3 ekintza. Irisgarritasuna hobetzeko jarduketen programa.**

2022. urtearen amaieran, K-6 Gestión Cultural erakundeak “Arabako Foru Aldundiaren museoen irisgarritasun unibertsalaren diagnostikoa” idatzi zuen. Bertako gomendioei jarraituz, eta oraindik horren aurrekontu partida espezifikorik ez dagoen arren, audiofrekuentziako begizta magnetikoak museo guztietan instalatzeko lehen urratsak ematen hasi dira, audiofonoak erabiltzen dituzten pertsonekiko komunikazioa errazteko helburuarekin.

Gainera, eta esperientzia pilotu gisa, BIBAT-Arabako Arkeologia Museoan “bitrina birtual” bat egin da. Horren bidez, bisitariek zuzenean terminal mugikorretatik irakurri ahal izango dituzte museoko kartela eta testu guztiak.

**1.4. ekintza. Arabako museoen kultura ondarearen zabalkundea eta sozializazioa**

Museoen foru sarearen funtsezko helburuetako bat da. Erakusketa iraunkorrak hobetu eta berritzean hezurmamitzen da, bai eta aldi baterako erakusketak antolatzean, ikerketa proiektuetan lankidetzan aritzean eta askotariko hezkuntza jarduerak eskaintzean ere.



una costosa actuación específica. Así, se han reubicado en mejores condiciones el instrumental científico antiguo, los congeladores para piezas orgánicas y otros objetos de diversa naturaleza del Museo de Ciencias Naturales y la colección de maquinaria del Museo Fournier de Naipes.

En cuanto al **Conjunto Monumental de Quejana**, ha sido necesario habilitar como almacén el espacio que se destinó a museo a partir de los años 90. Se han instalado nuevas estanterías y equipos deshumidificadores para conseguir un espacio cerrado y controlado que pueda servir de depósito provisional de los bienes muebles allí conservados.

**Acción 1.3.Programa de actuaciones para mejorar la accesibilidad.**

A finales de 2022 se concluyó por parte de *K-6 Gestión Cultural* la redacción del “Diagnóstico de accesibilidad universal de los museos de la Diputación Foral de Álava”. Siguiendo sus recomendaciones, y pese a no existir aún una partida presupuestaria específica al respecto, se han comenzado a dar los primeros pasos con la instalación en la recepción de todos los museos de bucles magnéticos de audiofrecuencia, para facilitar la comunicación con las personas que utilizan audífonos.

Además, y a modo de experiencia piloto, en el BIBAT-Museo de Arqueología de Álava se ha elaborado una “vitrina virtual” que posibilita la lectura de todas las cartelas y textos del museo directamente desde los terminales móviles de los visitantes.

**Acción 1.4. Difusión y socialización del patrimonio cultural de los Museos de Álava**

Es uno de los objetivos fundamentales de la red foral de museos. Se materializa en la mejora y renovación de las exposiciones permanentes, así como en la organización de exposiciones temporales, la colaboración en proyectos de investigación, y en la oferta de actividades educativas diversas.

Jarduera horietan guztietan, gizarte eta kultura aniztasuna sustatzeko egiten da lan, bai eta emakumeek arteari, historiari eta jarduera zientifikoari museoen eremuan egiten dioten ekarpena ikusarazteko ere.

**Bilduma iraunkorren** gaineko jarduketen artean, oro har, Eusko Jaurlaritzaren EMSIME-MUSEOTIK datu basean erregistroa eguneratzeko eta funtsak katalogatzeko lanekin jarraitzea aipatu behar da.

- Arte Ederren Museoa: Martiodako erlikien multzoa jauregiko kaperan instalatzeko prozesua amaitu da eta jendearentzat ireki da bilduma iraunkorraren espazio berri gisa. Horrez gain, Celaya Fundazioaren bildumako 41 lan eta 2 dagerrotipo bidali dira Zaharberrikuntza Zerbitzura, berrikusi edo tratatzeko.

- Natura Zientzien Museoa: erakusketa iraunkorrean ornogabeen zoologiako atala birmoldatu da “Biodibertsitatea” ideiaren inguruko beira arasa berriekin, eta, gainera, Arabako litologiako maketa zaharra kendu da (ez zen erabiltzen), bisitariak hobeto igaro daitezen. Web orriaren edukiak ere eguneratu eta hobetu dira.

- Arma Museoa: 2., 3. eta 20. beira arasetako museografia guztiz berritu da, eta, horrez gain, beste samurai armadura bat jarri da 22A beira arasan.

- BIBAT-Fournier Karta museoa: hainbat baliabide museografiko berritu dira (testu informazioa duten biniloak) eta ikus-entzunezko zenbait eduki eguneratu dira.

- BIBAT-Arkeologia Museoa: Antzinaro Berantiarreko materialak hirugarren solairuan kokatzeko proiektua jarri da abian.

En todas estas actividades se trabaja con el objetivo de fomentar la diversidad social y cultural, así como la visibilización de la aportación de las mujeres al arte, a la historia y a la actividad científica en el ámbito de los museos.

Entre las actuaciones sobre las **colecciones permanentes** se deben citar, en general, la continuidad de los trabajos de actualización del registro y catalogación de fondos en la base de datos EMSIME-MUSEOTIK, del Gobierno Vasco.

- Museo de Bellas Artes: se ha concluido el proceso de instalación del conjunto de las Reliquias de Martioda en la capilla del palacio y se ha abierto al público como nuevo espacio de la colección permanente. Además, se han enviado 41 obras de la colección de la Fundación Celaya así como 2 daguerrotipos al Servicio de Restauración para su revisión o tratamiento.

- Museo de Ciencias Naturales: en la exposición permanente se ha procedido remodelar el sector de zoología de invertebrados con nuevas vitrinas sobre la idea de “Biodiversidad”, además, se ha retirado la antigua maqueta de litología de Álava (en desuso), lo que posibilita mejorar el tránsito de visitantes. También se han actualizado y mejorado los contenidos de la página web.

- Museo de Armería: se ha producido la renovación completa de la museografía de las vitrinas 2, 3 y 20, y además, se ha incorporado una nueva armadura de *samurái* a la vitrina 22A.

- BIBAT-Museo Fournier de Naipes: se ha renovado diversos recursos museográficos (vinilos con información textual) y se han actualizado algunos de los contenidos audiovisuales.

- BIBAT-Museo de Arqueología: se ha puesto en marcha el proyecto de reubicación de materiales de la Tardoantigüedad, en la planta tercera.

**Ikerketa eta zabalkunde zientifikoko proiektuetan lankidetzan** aritzeari dagokionez, gai espezifiko bakoitzean, honako hauek hartu behar dira kontuan: ikertzaileei eman beharreko arreta, kanpo proiektuetan parte hartzeko funtsak mailegatzea eta hainbat motatako kontsultak egitea, bai materialei edo piezei buruz, bai dokumentazioari buruz, edo museoetako liburutegietan bertan:

- Arte Ederren Museoa: Caixa Forumek Bartzelonan eta Zaragozan egin duen erakusketa ibiltari baterako obra bat mailegatu da.
- Natura Zientzien Museoa: ikerketarako emandako 3 mailegu mantendu dira (18 ale), eta 3 doktore tesitan eta beste 65 ikerketa proiektutan parte hartu da. Gainera, 77 ikertzaile espezialista artatu dira eta herritarren 33 kontsultari erantzun zaie. Eta, azkenik, 52.415 online kontsulta jaso dira museoak GBIF (Global Biodiversity Information Facility) biodibertsitatearen nazioarteko informazio sarearen Espainiako nodoan mantentzen eta kudeatzen dituen sei datasetetan.
- Arma Museoa: ikertzaileen hogei bat kontsultari erantzun zaie eta pieza bat bost urterako utzi da Armada Museoaren bilduma iraunkorrerako.
- BIBAT-Fournier Karta museoa: ikertzaileen berrogeita hamar kontsulta inguruari erantzun zaie, aurrez aurre nahiz online, baita irudiak kopiatzeko hainbat eskaerari ere. Gainera, museoak berak UPV/EHUrekin elkarlanean azterlan teknikoak egitea bultzatu du, bildumako zenbait ale ezaugarritzeko eta hobeto ezagutzeko.
- BIBAT-Arkeologia Museoa: ikerketa proiektuak egiten ari ziren 45 pertsonari eman zaie arreta aurrez aurre. Hori dela-eta, laborategia 457 lanalditan erabili da, lanegun bakoitzeko 1,8 ikertzaile batez beste. Gainera,

En cuanto a la **colaboración en proyectos de investigación y difusión científica** en cada una de sus temáticas específicas, se debe considerar la atención a personas investigadoras, el préstamo de fondos para su participación en proyectos externos y las consultas de diverso tipo, tanto sobre los propios materiales o piezas, como sobre su documentación, o en las propias bibliotecas de los museos:

- Museo de Bellas Artes: se ha prestado una obra para una exposición itinerante de *Caixa Forum* que se ha exhibido en Barcelona y Zaragoza.
- Museo de Ciencias Naturales: se ha mantenido en activo 3 préstamos para investigación (con 18 ejemplares) y se ha colaborado en 3 tesis doctorales y en otros 65 proyectos de investigación. Además, se ha atendido a 77 investigadores especialistas y se ha respondido a 33 consultas ciudadanas. Y finalmente, se han recibido 52.415 consultas *on line* en los seis *datasets* que el museo mantiene y gestiona en el nodo español de la red internacional de información en Biodiversidad GBIF (*Global Biodiversity Information Facility*).
- Museo de Armería: se ha atendido en torno a una veintena de consultas de investigadores y se ha prestado una pieza como depósito por cinco años para la colección permanente del Museo de Ejército.
- BIBAT-Museo Fournier de Naipes: se han atendido cerca de medio centenar de consultas de investigadores, tanto de forma presencial como *on line*, y se han atendido diversas solicitudes de reproducción de imágenes. Además, desde el propio museo se ha impulsado la realización de estudios técnicos en colaboración con la UPV/EHU para la caracterización y mejor conocimiento de algunos de los ejemplares de la colección.
- BIBAT-Museo de Arqueología: se ha atendido de forma presencial a 45 personas que realizaban proyectos de investigación, lo que ha supuesto el uso del laboratorio durante 457 jornadas de trabajo, a una media de 1,8

materialei, bibliografiari, dokumentazioari edo irudien erabilerari buruzko beste 59 kontsulta artatu dira. Azkenik, hainbat aztarnategitako material arkeologikoak mailegatu dira, bai ikerketa premia bereziei erantzuteko (azterlan antropologikoak eta faunarenak), bai Bilbon eta Gijónen aldi baterako erakusketak ilustratzeko.

Bestalde, bildumetarako sarbide digitala errazteko, ondare elementuak dokumentatzen ari dira museo guztiak, Eusko Jaurlaritzako Museoen Zentroarekin lankidetzan. Horretarako, giga-pixel bereizmeneko argazkiak ateratzen ari dira.

**Hezkuntza jardueren proposamenaren** esparruan, aurreko urteetan bezala, bi multzo handi eskaini dira, publiko desberdinentzat:

- Eskola programa: prestakuntza maila desberdinetara egokitua eta hainbat modalitaterekin, hala nola bisita tailerrak, bisita interaktiboak eta bisita gidatuak foru museoetan.
- Hedapen orokorreko programa: familientzako edo noizbehinkako publikoentzako. Hainbat proposamen egin dira, hala nola familia bisitak, urtebetetzeak ospatzea museoan, bisita tematikoak Aste Santuan, bisita bereziak eta udalekuak udan, Gabonetako tailerrak eta bisitak.

Horrela, foru museoetan guztira 827 bisita eta tailer egin dira (2022an baino 209 gehiago). Partaidetza handiagoa izan da orokorrean (17.601 pertsona, eta 2022an 14.441), eta horrek oso balantze orokor positiboa ematen du.

Gainera, eta bereziki, Museoen Nazioarteko Egunari lotutako gai espezifikoen inguruko jarduerak egin dira (aldi baterako erakusketa bat inauguratu da Fournier Karta Museoan, erakusketa iraunkorraren zati bat birmoldatu da Natura Zientzien Museoan, eta bi hitzaldi eta sari

investigadores por día laborable. Además, se han atendido otras 59 consultas de diversa índole sobre materiales, bibliografía, documentación o uso de imágenes. Y por último, se han prestado materiales arqueológicos de diversos yacimientos tanto para atender necesidades especiales de investigación (estudios antropológicos y faunísticos) como para ilustrar diversas exposiciones temporales en Bilbao y Gijón.

Por otro lado, para facilitar el acceso digital a las colecciones, desde todos los museos se está trabajando, en colaboración con el Centro de Museos del Gobierno Vasco, en la documentación de elementos patrimoniales mediante captura fotográfica con resolución giga-píxel.

En el marco de la **propuesta de actividades educativas** se han ofertado, como en años anteriores, dos grandes bloques destinadas a públicos diferentes:

- Programa escolar: adaptado a los diferentes niveles formativos y con diversas modalidades como visitas-taller, visitas interactivas y visitas guiadas en el conjunto de los museos forales.
- Programa de difusión general: destinado a público familiar u ocasional, de nuevo también con diversas propuestas como visitas en familia, cumpleaños en el Museo, visitas temáticas en Semana Santa, visitas especiales y colonias en verano, talleres y visitas de la campaña de Navidad.

Así, en el conjunto de los museos forales se han realizado un total de 827 visitas y talleres (209 más que en 2022), con una mayor participación global (17.601 personas, frente a las 14.441 de 2022), lo que arroja un balance general muy positivo.

Además, y con carácter especial, se han realizado actividades de temática específica vinculadas al **Día Internacional de los Museos** (inauguración de una exposición temporal en el Museo Fournier de Naipes, la remodelación de parte de la exposición permanente en el de Ciencias

banaketa bat ere egin dira).

**Kexaako monumentu** multzoari dagokionez, interes handieneko eremuak minimoki egokitu ondoren, bisita gidatuen programa pilotu bat eskaini zen urte amaieran, eta arrakasta handia izan zuen, eskainitako plaza guztiak agortu baitziren. Horrela, guztira 530 lagunek bisitatu zituzten azarotik abendura eskainitako bisita gidatuak.

**Bisitarien datu orokorren harira, goranzko joerari eutsi zaio.** Horrela, 2023an, AFAren museoetara eta bertako zentro elkartuetara 131.320 bisitari joan dira, lehen aipatutako jarduera kolektiboetako parte hartzaileak barne.

Museoen arabera, honela banatzen dira:

Naturales, así como dos conferencias y una entrega de premios).

En cuanto al **Conjunto Monumental de Quejana**, una vez acondicionadas mínimamente las zonas de mayor interés, se precedió a ofertar un programa piloto de visitas guiadas a finales de año, que consiguió un éxito importante, al agotar todas las plazas ofertadas. Así, visitaron el conjunto un total de 530 personas en las visitas guiadas ofertadas entre noviembre y diciembre.

Por lo que respecta a los **datos globales de visitantes**, se ha continuado en la línea ascendente de los ejercicios. Así, en 2023, han acudido a los museos de la DFA y a sus centros asociados, **131.320 visitantes**, incluidos los participantes en las actividades colectivas antes citadas.

Por museos su distribución en la siguiente:

| | |
|---|---:|
| BIBAT / BIBAT | 54.620 |
| Arte Ederrak / Bellas Artes | 25.889 |
| Natura Zientziak / Ciencias Naturales | 16.543 |
| Arma Museoa / Armería | 16.918 |
| Hoya / La Hoya | 4.880 |
| Iruña Veleia / Iruña-Veleia | 3.395 |
| Amarika aretoa / Sala Amárica | 4.111 |
| Varonatarren dorrea / Torre Varona | 4.964 |
| **GUZTIRA / TOTAL** | **131.320** |

2022. urtearekin alderatuta, % 13ko igoera egon da, eta asko hurbiltzen da 2019an erregistratutako bisitari errekorrera (134.751).

**Generoaren araberako** banaketari erreparatuz gero, ohikoa den bezala, emakumezko bisitarien kopurua gizonena baino pixka bat handiagoa da (% 53,67), bai banakako bisita libreei dagokienez, bai bisita gidatuetan eta tailerretan parte hartzeari dagokionez.

Bestalde, foru museoetan egindako **oroimenezko produktuen edo merchandisingaren**

Supone un incremento del 13% con respecto al año 2022, y se acerca mucho a la cifra de visitantes récord registrada en 2019 (134.751).

En cuanto a su **distribución por género**, como viene siendo habitual, existe un ligero predominio de visitantes femeninos (53,67%) sobre los masculinos, tanto en lo que se refiere a las visitas libres individuales como a la participación en visitas guiadas y talleres.

Por su parte, las **ventas de productos de recuerdo o *merchandising*** realizadas en los

**salmentak** 4.578,90 € izan dira, iaz saldutakoaren azpitik (% 40 gutxiago).

Aldi baterako **erakusketen harira,** 20 formatu eta eduki desberdinetakoak antolatu dira, nahiz eta batzuk 2022koak izan:

Arte Ederren Museoa: 3

- “Daniel Zuloaga (1852-1921), zeramikaria” (2022ko maiatzetik 2023ko urtarrilera). A5 formatuko katalogoa.
- “Nicolás Tarkhoff (1871-1930)” (2023ko otsailetik 2024ko urtarrilera). A5 formatuko katalogoa.
- “Interkonektatuta” (2023ko otsailetik 2024ko urtarrilera). A4 formatuko katalogoa.

Natura Zientzien Museoa: 3

- “Inphimum” (2023ko ekainetik 2024ko maiatzera). A5 formatuko katalogoa.
- “IX. Haur Marrazki Txapelketa: Nire piezarik gustukoena”, ALAVESIArekin lankidetzan (ekainetik urrira).
- “Pedro Uribe-Echebarriari omenaldia” (2023ko urritik 2024ko apirilera). A5 formatuko katalogoa.

BIBAT- Arkeologia Museoa: 4

- “Euskal Herriko Erdi Aroko Gazteluak” (otsailetik apirilera).
- “Blas de Arratibel artisautza lehiaketa” (azaroa eta abendua).
- “Emakumea Ardogintzan” (Ardoarabarekin, 2024ko azarotik urtarrilera)
- Zehatz-mehatz VI San Joan Ante Portam Latinam. Hezur eta Paradigma Hautsiak (abendutik). Eskuorria.

BIBAT- Fournier Karta Museoa: 3

- “Alpinist 54. Chema Agustinen

Museos forales han ascendido a la cantidad de 4.578,90 €, por debajo de lo vendido el pasado año (un 40% menos).

En lo que respecta a las **exposiciones temporales**, se han organizado 20 de diferentes formatos y contenidos, aunque algunas provenían de 2022:

Museo de Bellas Artes: 3

- “Daniel Zuloaga (1852-1921), ceramista” (de mayo de 2022 a enero de 2023). Catálogo formato A5.
- “Nicolás Tarkhoff (1871-1930)” (de febrero de 2023 a enero de 2024). Catálogo formato A5.
- “Interconectadas” (de junio de 2023 a enero de 2024). Catálogo formato A4.

Museo de Ciencias Naturales: 3

- “Inphimum” (de junio de 2023 a mayo de 2024). Catálogo formato A5.
- “IX Concurso Infantil de Dibujo: Mi pieza favorita”, en colaboración con ALAVESIA (de junio a octubre).
- “Homenaje a Pedro Uribe-Echebarria” (de octubre de 2023 a abril de 2024). Catálogo formato A5.

Museo BIBAT-Arqueología: 4

- “Castillos medievales de Vasconia” (febrero a abril).
- “Certamen Artesanía Blas Arratibel” (noviembre y diciembre).
- “La mujer y la cultura del vino” (con Ardoaraba, noviembre a enero 2024)
- Zehatz-meatz VI San Juan Ante Portam Latinam. Huesos y paradigmas rotos (desde diciembre). Folleto.

Museo BIBAT-Fournier de Naipes: 3

- “Alpinist 54. Dibujos de Chema Agustín”

marrazkiak" (martxorik maiatzera). Eskuorria.

- "Sevilla-Barcelona 29. Fournier 1929ko erakusketan / Fournier en las exposiciones de 1929" (2023ko maiatzetik 2024ko otsailera). A5 katalogoa.
- "Celedón aldizkaria. Gasteizko jaiaren apologia (1918-1935) / Revista Celedón. Apología de la fiesta vitoriana (1918-1935)" (ekainetik urrira). Eskuorria.

Amarika aretoa: 7

- "Del que passa a fora" (Erik Estany, VIPHOTO, 2022ko abendutik 2023ko urtarrilera)
- "Rügen" (otsailetik maiatzera)
- "Tetrapack 2023" (maiatzetik ekainera)
- "Argazkilari baten soinuak" (Stuart MacDonald, ekaina)
- Emakumea_Makina_Fabrika (uztailetik urrira)
- "Arabaclick 2023" (urritik azarora)
- "Ser lobas" (Lurdes R. Basolí, Elisa Miralles, 2023ko abendutik 2024ko urtarrilera)

Bestalde, museoek 19 dibulgazio jarduera antolatu dituzte (batzuetan elkarte laguntzaileekin lankidetzan); esaterako, hitzaldiak, konferentziak, aurkezpenak, tailerrak edo bisita espezializatuak.

Gainera, museoetako aretoak eta espazioak 42 aldiz laga dira kanpoko jarduerak antolatzeko.

Eta azkenik, emakumeen presentzia handia izan da. Aldi baterako erakusketen artean hirutan protagonista izan dira, eta, gainera, beste zortzitan, emakumeek artista eta/edo erakusketa koordinatzaile gisa hartu dute parte. Museoetan zuzenean edo zeharka antolatutako dibulgazio jardueretan ere presentzia nabaria izan dute (% 53 inguru).

(de marzo a mayo). Folleto.

- "Sevilla-Barcelona 29. Fournier 1929ko erakusketan / Fournier en las exposiciones de 1929" (de mayo 2023 a febrero 2024). Catálogo A5.
- "Celedón aldizkaria. Gasteizko jaiaren apologia (1918-1935) / Revista Celedón. Apología de la fiesta vitoriana (1918-1935)" (junio a octubre). Folleto.

Sala Amárica: 7

- "Del que passa a fora" (Erik Estany, VIPHOTO, diciembre 2022 a enero 2023)
- "Rügen" (febrero a mayo)
- "Tetrapack 2023" (mayo a junio)
- "Los sonidos de un fotógrafo" (Stuart MacDonald, junio)
- Mujer_Máquina_Fábrica (julio a octubre)
- "Arabaclick 2023" (octubre a noviembre)
- "Ser lobas" (Lurdes R. Basolí, Elisa Miralles, diciembre 2023 a enero 2024)

Por otro lado, desde los diferentes museos se han organizado **19 actividades divulgativas** (a veces en colaboración con asociaciones colaboradoras) como charlas, conferencias, presentaciones, talleres o visitas especializadas.

Además, las salas y espacios de los Museos se han cedido para la **organización de actividades externas** en 42 ocasiones.

Y finalmente, la **presencia femenina ha sido importante** puesto que ha protagonizado específicamente tres de las exposiciones temporales y además, en otras ocho, las mujeres han tomado parte como artistas y/o comisarias. También su presencia ha sido destacada en las actividades divulgativas organizadas, directa o indirectamente, en los museos (en torno a un

**LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023**

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 333700 MUSEOS

53%).

**2. HELBURUA: Arabako Lurralde Historikoko beste museo batzuei laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea**

Museoei lotutako hainbat erakunderen finantzaketan laguntzea izendun dirulaguntzen bitartez:

**2.1. ekintza. Museoei edo antzeko zentroei zuzendutako dirulaguntza izendunen kudeaketa**

Beste ekitaldi batzuetan bezala, aurrekontuetan jasotako dirulaguntzak kudeatu dira:

- ARTIUM Arte Garaikidearen Euskal Museoa. Beste urte batzuetan ezarritako prozedura jarraitu da.
- Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa. Finantzaketa laguntza izendun gisa izapidetu da, eta prozedura hori etorkizunerako finkatu da.
- Artziniegako Etnografia Museoa. Artziniegako Udalari indarrean dagoen hitzarmenean aurreikusitako finantzaketa eman zaio.
- Varonatarren dorretxea (Villañane, Gaubea). Gaubeako Udalaren aldeko dirulaguntza izenduna izapidetu da, Turismoko Udal Patronatuaren bidez dorrea jendearentzat irekitzea finantzatzeko.

**2.2. ekintza. Museo jardueretarako dirulaguntzen lerroa berreskuratzea**

Museoen eremuarekin lotutako jardueretarako dirulaguntzen deialdi berri bat egin da.

Lau eskaera aurkeztu dira, baina bat kanpoan gelditu da gutxieneko baremora iristen ez zelako. Beste hirurak AMBA (Arte Ederren Museoaren Lagunen Elkartea), ALAVESIA (Arabako Natura Zientzien Museoaren Lagunen Elkartea) eta Urizaharrako Lorenzo Prestamero Etnografi Elkartea dira.

**OBJETIVO 2: Apoyar técnica y económicamente a otros museos del Territorio Histórico de Álava**

Apoyo a la financiación de diversas instituciones de carácter museístico por medio de la concesión de subvenciones nominativas:

**Acción 2.1. Gestión de las subvenciones nominativas para Museos o centros asimilados**

Como otros ejercicios, se han gestionado las subvenciones previstas en los presupuestos:

- Museo Vasco de Arte Contemporáneo ARTIUM. Se ha seguido el procedimiento establecido otros años.
- Museo Diocesano de Arte Sacro. Se ha tramitado la financiación como una ayuda nominativa, procedimiento que se ha fijado para el futuro.
- Museo Etnográfico de Artziniega. Se ha aportado al Ayto. de Artziniega la financiación prevista por el convenio en vigor.
- Casa-torre de los Varona (Villanañe, Valdegovía). Se ha tramitado la subvención nominativa a favor del Ayuntamiento de Valdegovía para financiar la apertura al público de la torre a través del Patronato Municipal de Turismo.

**Acción 2.2. Recuperación de la línea de subvenciones para actividades de carácter museístico**

Se ha efectuado una nueva convocatoria de subvenciones para actividades relacionadas con el ámbito de los Museos.

Se han presentado cuatro solicitudes, aunque una ha quedado fuera por no alcanzar el baremo mínimo. Las otras tres corresponden a AMBA (Asociación de Amigos del Museo de Bellas Artes), ALAVESIA (Asociación de Amigos del Museo de Ciencias Naturales de Álava) y a la Asociación Etnográfica Lorenzo Prestamero Etnografi Elkartea, de Peñacerrada.

**2.3. ekintza. Aholkularitza eta harremana Arabako museo zentroekin**

Ez da aurrera egin kontaktuekin, aldez aurretik beharrezkotzat jotzen baita balizko laguntza tekniko eta/edo ekonomikoen jarduketa proposamen zehatz eta mugatu bat definitzea.

## II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA

Oro har, esan dezakegu programatutako helburuak behar bezala bete direla, nahiz eta alderdi batzuk berriz aztertu eta definitu behar diren; beste batzuek, berriz, aurrekontu gehiago eta kudeaketa hobetzea behar dute etorkizuneko ekitaldiei begira.

**1. HELBURUA.- AFAren museoak eta antzeko zentroak kudeatzea**

**1.1. ekintza. AFAko museoen zerbitzu kartaren hasierako ezarpena eta jarraipena**

*1.1.1. Bisitarien gogobetetze mailari buruzko inkestak.*

Dokumentu bat, 4. hiruhilekoari dagokiona. Zerbitzu karta maiatzean ezarri zen, eta horri lotuta dago. Beraz, lehen inkestak 2023ko azken hiruhilekoan egin ziren, eta oso emaitza onak izan zituzten, aurreikuspenen gainetik. Nolanahi ere, lagina oraingoz ez da oso adierazgarria, eta, hortaz, 2024ko datuek argigarriagoak izan beharko dute.

**1.2. ekintza. Bildumen biltegiratze eta kontserbazio prebentiboko baldintzak hobetzea.**

*1.2.1. Ibilgailuen Zerbitzuan erabilgarri dauden espazioak Kultura eta Kirol Sailari lotzeko txostena.*

Nahiago izan da eskaera atzeratzea, aldez aurretik 1.2.2 puntuan ezarritako proposamenaren bideragarritasuna egiaztatzeko.



**Acción 2.3. Asesoramiento y relación con centros de carácter museísticos de Álava**

No se ha avanzado con los contactos en este sentido, porque previamente se considera necesario definir una propuesta de actuación concreta y definida de posibles apoyos técnicos y/o económicos.

## II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

En general podemos considerar que los objetivos programados se han cumplido de forma satisfactoria, aunque existen algunos aspectos que precisan reconsiderarse y redefinirse, mientras que otros, en cambio, requieren refuerzo presupuestario y mejora de gestión de cara a futuros ejercicios.

**OBJETIVO 1.- Gestionar los Museos y centros asimilados de la DFA**

**Acción 1.1. Implantación y seguimiento inicial de la Carta de Servicios de los Museos de DFA**

*1.1.1. Encuestas sobre grado de satisfacción de visitantes.*

1 documento, correspondiente al 4º trimestre. Su realización se vinculada a la implantación de la Cata de Servicios, que se produjo en mayo. Por tanto, las primeras encuestas se realizaron en el último trimestre de 2023 con resultados muy satisfactorios y por encima de las previsiones. En todo caso, la muestra es por ahora poco representativa, por lo que los datos de 2024 deberán ser más clarificadores al respecto.

**Acción 1.2. Mejora de las condiciones de almacenaje y conservación preventiva de las colecciones.**

*1.2.1. Informe para la vinculación al Dpto. de Cultura y Deporte de los espacios disponibles en Parque Móvil.*

Se ha preferido posponer la solicitud para previamente contrastar la viabilidad de la propuesta establecida en 1.2.2.

*1.2.2. Proposamen arkitektonikoa, balorazio ekonomikoarekin, Ibilgailuen Zerbitzuko espazioak Museo eta Arkeologia Zerbitzuko Ondasun Higigarrien Gordailu bihurtzeko.*

Ibilgailuen Zerbitzuan eskuragarri dauden espazioen etorkizuneko birmoldaketa arkitektonikorako proposamen baloratua landu da. *1618 arkitektura estudioak eta F&M Energía ingeniaritzak idatzi dute batera.*

**1.3. ekintza. Foru museoetako bilduma iraunkorretarako irisgarritasun baldintzak hobetzeko programa definitzea**

*1.3.1. Museoen arabera baloratutako jarduketen programa.*

*K-6 Gestión Cultural erakundeak museo bakoitzaren egoeraren diagnostikoa egin du.* Jarduketa puntual txikiak egin dira, baina museo bakoitzerako jarduketa plan xehatua zehazteke dago.

**1.4. ekintza. Arabako museoen eta kultura ondarearen bildumak zabaltzea.**

*1.4.1. Eskainitako jardueretako parte hartzaile kopuruaren hazkundearen ehunekoa*

% 21,88ko hazkundea.

827 bisita gidatu eta tailer egin dira foru museoetan, hau da, 2022an baino 209 gehiago, eta partaidetza handiagoa izan da orokorrean (17.601 pertsona, eta 2022an 14.441). Horrek oso balantze orokor positiboa ematen du, honako banaketa honekin:

- Generoaren arabera: % 53,67 emakumeak eta % 46,33 gizonak.
- Hizkuntzaren arabera: % 46,67 euskaraz eta % 53,33 gaztelaniaz.
- Jatorriari dagokionez, Araba nabarmentzen da (% 94,55). Gainerako bisitariak EAEko

*1.2.2. Propuesta arquitectónica con valoración económica de la conversión de espacios disponibles en el Parque Móvil en Depósito de Bienes Muebles del Servicio de Museos y Arqueología.*

Se ha elaborado una propuesta valorada para una futura remodelación arquitectónica de los espacios ofrecidos como disponibles en el Parque Móvil. Ha sido redactada de forma conjunta por *1618 Estudio de Arquitectura* y la *Ingeniería F&M Energía*.

**Acción 1.3. Definición de un programa de mejora de las condiciones de accesibilidad en las colecciones permanentes de los Museos forales**

*1.3.1. Programa de actuaciones valoradas por museos.*

Se cuenta con el diagnóstico de la situación de cada museo elaborado por *K-6 Gestión Cultural.* Se han efectuado pequeñas actuaciones puntuales pero falta por definir un plan de actuación detallado para cada museo.

**Acción 1.4. Difusión de las colecciones de los Museos y del patrimonio cultural en Álava.**

*1.4.1. Porcentaje de incremento en el número de participantes en actividades ofertadas*

Incremento del 21,88%.

Se ha realizado 827 visitas guiadas y talleres en los museos forales, lo que supone 209 más que en 2022, con una mayor participación global (17.601 personas, frente a las 14.441 de 2022), lo que arroja un balance general muy positivo con la siguiente distribución:

- Por género: 53,67% mujeres y 46,33% hombres.
- Por idioma: 46,67 % en euskera y 53,33 % en castellano.
- Por procedencia, destaca abrumadoramente Álava, con el 94,55%, mientras que el

beste lurralde batzuetatik (% 1,23), Estatutik (% 2,17) eta atzerritik (% 2,05) etorri dira.

- Hartzaileen arabera, ia modu orekatuan banatzen dira ikastetxeen programarako jarduerak (% 51) eta familientzako edo helduentzako jarduerak (% 49).

*1.4.2. Museoetan antolatutako aldi baterako erakusketen kopurua.*

Formatu eta eduki desberdinetako aldi baterako 13 erakusketa antolatu dira, nahiz eta batzuk 2022koak izan. Museoka, hiru Arte Ederren Museoan izan dira; beste hiru, Natura Zientzien Museoan; lau, BIBAT-Arkeologia Museoan; eta hiru, BIBAT-Fournier Karta Museoan. Horietatik bost formatu handi edo ertainekoak dira.

*1.4.3. Amarika Aretoko erakusketa kopurua.*

Zazpi erakusketa antolatu dira, areto nagusian zein areto txikian.

*1.4.4 Foru museoetara bisita gehiago, aurreko urtearekin alderatuta*

% 13ko igoera. 2023an, 131.320 bisitari joan dira AFAren museoetara eta bertako zentro elkartuetara —antolatutako jarduera kolektiboetan parte hartu duten bisitariak barne—. 2022. urtearekin alderatuta, % 13ko igoera egon da, eta asko hurbiltzen da 2019an erregistratutako bisitari errekorrera (134.751).

*1.4.5. Emakumeen ehunekoa zentroetako erabiltzaileen artean.*

% 53,67 emakumeak. Alde txikiarekin, emakumeak dira nagusi bisita orokorretan (ehunekoa txertatu) eta bisita gidatuetan eta tailerretan (% 53,67 emakumeak eta % 46,33 gizonak).

*1.4.6. Merchandising produktuen fakturazio aldakuntza.*

Foru museoetako oroigarri edo

resto corresponde a visitantes de otros territorios de Euskadi (1,23%), del estado (2,17%) y del extranjero (2,05%).

- Por destinatarios, se reparten casi de forma equilibrada las actividades destinadas al programa de centros escolares (51%) y al público familiar o adulto en sentido amplio (49%).

*1.4.2. Numero de exposiciones temporales organizadas en los museos.*

Se han organizado 13 exposiciones temporales de diferentes formatos y contenidos, aunque algunas provenían de 2022. Por museos, han sido tres en Bellas Artes; otras tres, en Ciencias Naturales; cuatro en BIBAT-Arqueología; y tres en BIBAT-Fournier de Naipes. De ellas, cinco pueden considerarse de formato grande o mediano.

*1.4.3. Número de exposiciones en Sala Amárica.*

Se han organizado siete exposiciones, tanto en la sala principal como en la sala pequeña.

*1.4.4 Aumento de visitas a los museos forales respecto del año anterior*

13% de incremento. En 2023 han acudido a los museos de la DFA y a sus centros asociados, **131.320 visitantes**, incluidos los participantes en las actividades colectivas organizadas Supone un incremento del 13% con respecto al año 2022, y se acerca mucho a la cifra de visitantes récord registrada en 2019 (134.751).

*1.4.5. Porcentaje de mujeres entre los usuarios de los centros.*

53,67% de mujeres. Se observa un ligero predominio femenino tanto en las visitas generales (incluir porcentaje) como en la participación en visitas guiadas y talleres (53,67 % mujeres y 46,33% hombres).

*1.4.6. Variación de facturación de productos de merchandising.*

Las ventas de productos de recuerdo o

merchandising produktuen salmentak 4.578,90 € izan dira, 2022an saldutakoa baino % 40 gutxiago.

*1.4.7. Kanpo antolamenduko ekitaldietarako aretoak lagatzea.*

Museoetako aretoak eta espazioak 42 aldiz laga dira kanpoko jarduerak antolatzeko.

*1.4.8. Emakumeen protagonismoa duten jardueren ehunekoa.*

Jardueren % 52. Emakumeen presentzia handia izan da. Anatolatutako erakusketen artean hirutan protagonista izan dira, eta, gainera, beste zortzitan, emakumeek artista eta erakusketa koordinatzaile gisa hartu dute parte (% 55). Museoetan zuzenean edo zeharka antolatutako dibulgazio jardueretan ere presentzia nabaria izan dute. Horrela, antolatutako 19 jardueretatik 10etan, parte hartzaileren bat emakumea zen (% 52).

**2. HELBURUA: Arabako Lurralde Historikoko beste museo batzuei laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea**

**2.1. ekintza. Museoei edo antzeko zentroei zuzendutako dirulaguntza izendunen kudeaketa**

*2.1.1. Dirulaguntza izendunetarako egikaritutako aurrekontuaren ehunekoa.*

Aurrekontuaren % 100. Beste ekitaldi batzuetan bezala, aurrekontuetan jasotako dirulaguntzak kudeatu dira:

- ARTIUM Arte Garaikidearen Euskal Museoa.
- Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa.
- Artziniegako Etnografia Museoa.
- Varonatarren dorretxea.

**2.2. ekintza. Museo izaerako jarduera osagarrientzako dirulaguntza lerroa sustatzea**



*merchandising* realizadas en los Museos forales han supuesto 4.578,90 €, un 40% menos de lo vendido en 2022.

*1.4.7. Cesiones de salas para eventos de organización externa.*

Las salas y espacios de los museos se han cedido para la organización de actividades externas en 42 ocasiones.

*1.4.8. Porcentaje de actividades con protagonismo femenino.*

52 % de las actividades. La presencia femenina ha sido importante puesto que ha protagonizado específicamente tres de las exposiciones organizadas y, además, en otras ocho, las mujeres han tomado parte como artistas y comisarias (55%). También su presencia ha sido destacada en las actividades divulgativas organizadas, directa o indirectamente, en los museos. Así, en 10 de las 19 actividades organizadas, alguna de las personas participantes era mujer (52%).

**OBJETIVO 2: Apoyar técnica y económicamente a otros museos del Territorio Histórico de Álava**

**Acción 2.1. Gestión de las subvenciones nominativas para Museos o centros asimilados**

*2.1.1. Porcentaje del presupuesto ejecutado para subvenciones nominativas.*

100 % del presupuesto. Como otros ejercicios, se han gestionado las subvenciones previstas en los presupuestos:

- Museo Vasco de Arte Contemporáneo ARTIUM.
- Museo Diocesano de Arte Sacro.
- Museo Etnográfico de Artziniega.
- Casa-torre de los Varona.

**Acción 2.2. Impulso a la línea de subvenciones para actividades complementarias de carácter museístico**

*2.2.1. Museo jarduera osagarrientzako dirulaguntzen deialdia.*

3 dirulaguntza eman dira eta aurrekontuaren % 100 egikaritu da. Lau eskaera aurkeztu dira, baina bat kanpoan gelditu da gutxieneko baremora iristen ez zelako.

**2.3. ekintza. Aholkularitza Arabako museo zentroei**

*2.3.1. Jardueraren jarraipena egiteko izandako kontaktuak.*

Ez da aurrera egin kontaktuekin, aldez aurretik beharrezkotzat jotzen baita zentro horiei dagokienez jarduketa proposamen zehatz bat definitzea.

*2.2.1. Convocatoria de subvenciones para actividades complementarias de carácter museístico.*

3 subvenciones concedidas y un 100% del presupuesto ejecutado. Se han presentado cuatro solicitudes, aunque una ha quedado fuera por no alcanzar el baremo mínimo.

**Acción 2.3. Asesoramiento a centros de carácter museísticos de Álava**

*2.3.1. Contactos mantenidos para realizar seguimiento de actividad.*

No se ha avanzado con los contactos en este sentido, porque previamente se considera necesario definir una propuesta de actuación concreta con respecto a estos centros.